

/ Nabarmenezkoak

- > Getxo Rugby taldeak igoera zuzena izango du jokoan Faduran (4. or.)
- > Agur Jose Antonio Sellán "Txato"-ri (3. or.)
- > Demode Quartet, a capella kantua eta umorea Romo Kultur Etxean (3. or.)



* Getxo Kirolaren udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik (4. or.)

Nazioarteko Dantza Eguna. Hilak 29, larunbata, Algortako San Nikolas plazan, bertoko dantza eskoletako ikasleen eskutik. Goizez eta arratsaldez.

**A-
GENDA**

Pío Lindegaarden omenezko kontzertua. Hilak 30, igandea, Jean Toussaint Quartet, 19:30ean, Muxikebarrin. 15€.

Kirol Portuaren obren eta ustiapenaren administrazio-emakida esleitu da 2025-2040 aldirako

Puerto Deportivo El Abra Getxo SA Udal Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2025-2040 aldirako kirol portuaren obren eta ustiapenaren administrazio-emakida esleitu zion joan den martxoaren 31n MOYUA eta BYCAM enpresek eratutako sozietateari.

Mugarri horretatik aurrera, trantsizio-prozesu progresibo bat hasiko da. Prozesu horretan, Kirol Portua berritzeko eta berrantolatze obrak egiteko behar diren lan tekniko eta administratiboekin ekingo zaie, kirol-portua Kantauri isurialdeko *Home Port* kontzeptura egokitzeko, Euskadira sarrera estrategiko gisa indartzeko eta Getxo, Bizkaia eta Euskadira garapen ekonomiko



eta sozialaren leku bihurtzeko. Horretarako, Bilboko Portu Agintaritzak 1995ean udal-sozietate publikoari emandako emakidaren arabera, beharrezkoa izango da portua bere errealitatera eta ustiapen ekonomikorako gaitasunera egokitzea, ur-xafla, urbanizazioan eta eraikinetan egin beharreko esku-hartzei aurre egitea portua desestacionalizatzeko, haren eraginkortasuna hobetzeko, baliabideak optimizatzeko eta turismo nautikoaren eta itsas bidaiarien eskaerei erantzuteko. Getxoko Kirol Portua ustiatzeko eta obrak egiteko emakida berriarekin, irudi berri bat eman nahi zaio, bizi-berritzeko eta Getxoko herritar guztientzako gune bihurtzeko.

Liburu Azokak irakurketaren mundua kalera eramango du asteburu honetan

Asteburu honetan, hilaren 21etik (ostirala) 23ra (igandea), Liburu Azoka egingo da Algortako Gelto-ki plazan. Bertan, herriko hainbat liburu-dendatako etxolak, liburutegi zerbitzuko beste bat bilduko dira eta, oraingoan, Ramiro Pinilla idazleari eskainitako bat, bere jaiotzaren mendeurrenean. Gainera, liburuen munduarekin zerikusia duten hainbat jardura egingo dira plazan bertan. Azoka goiz eta arratsaldez irekiko da (igandean, goizeko ordutegian bakarrik).

Azokan literaturako azken nobedadeak erosi ahal izango dira, %10eko deskontuarekin. Ohikoa denez, liburutegiek beren etxola jarriko dute udal funtsekin. Mailegu zerbitzuari esker, liburuak etxera eraman ahal izango dira. Gainera, haur eta gazteek "in situ" irakurtzeko komiki eta ipuin sorta zabala aurkituko dute. Jarduerei dagokionez, azoka osoan zehar tailerrak, eskulanak eta haurrentzako jolasak izango dira.

Azoka **ostiralean, hilak 21**, hasiko da herriko hainbat ikastetxetako ikasleekin. Horiek izango dira haurren irakurketa publikoaren hogeita laugarren edizioeko protagonistak, 10:30etik aurrera. Jardunaldian zehar berdintasunaren aldeko txapailerra egingo da (11:00-14:00), txoko lila batekin batera. Arratsaldean, 18:00etan, Badut taldeak *Zirriborro* testurik gabeko familia ikuskizuna eskainiko du.

Larunbatean, hilak 22, 10:30ean hasiko da Ramiro Pinillaren Getxoko ibilbide literarioa, Gustavo Iduriagaren eskutik (izen-emateak www.getxo.eus/pinilla esteka

karen bidez). 11:00etan, hurrek (2-10 urte) hitzordua izango dute *The King's Servant* ingelesezko ipuin kontalariarekin, Kids & Us Getxo-Algortaren eskutik, eta, goiza amaitzeko, *La biblioneta de Eme*, haurrentzako idazketa-tailerra barne hartzen duen ikuskizuna ere egongo da. Arratsaldean, 17:00etan, *Caballito alado* liburuari buruz ipuin kontalaria izango da Belém López egilearen eskutik. 17:30ean, beste ipuin kontalari bat izango da, oraingoan euskaraz: *Ainhoaren fabulak*. Eguna amaitzeko, *Lindy Hop* tailerra izango da (19:30-20:30) Portugaleteko Swing

dantza eskolaren eskutik.

Igandean, hilak 23, Ramiro Pinillari buruzko literatur ibilbidea errepikatuko da, 10:30ean, eta 11:00etatik 12:00etara idazleen topaketa izango da. Besteak beste, Belém López, Chelo Sierra, Garazi Basterretxea, Javier Liñera eta Manu Oliver izango dira. Azokari amaiera emateko bertso saio literarioa egingo dute Unai Iturriagak (gai-jartzailea) eta Uxue Bilbaok.

Ramiro Pinillaren mendeurrena Idazlearen mendeurrenean (1923-2014), Azokan berari eskainitako etxola bat egongo da, Pinillesca kolektiboak jarrita. Bere lanez gain, Pinillak bultzatutako Libropueblo argitaletxearen lehen edizioetako batzuk ere izango dira bertan. Argitaletxe horretan, besteak beste, trilogiaren lehen liburukia, *Verdes valles, colinas rojas* egongo da. Azokan liburuak erosten edo maileguan daramatzaten bisitariei opari bat emango zaie.





APIRILAK 20 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. Algortako Kultur Aretoa (Villamonte), 18:00etan, "Manttalgorri hegalaria", Lur Usabiagarekin. Euskaraz. 2-6 urteko umeentzat.

Zinemabari. 19:00ean, Muxikebarrin, "Close", Lukas Dhonten filma. 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Liburu-aurkezpena. Algortako Kultur Etxean (Villamonte), 19:00etan, "Caminamos", Ángel Fernández Velasco egilearekin.

Literatura solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, "Las primas", Aurora Venturiniarekin. Sarrera dohainik.

Hitzaldia. 18:30ean, Algortako Urgull Zentroan, "Vamos siendo mayores y surgen problemas ¿Quién puede ayudarnos?". Hizlaria: Carmen Díaz udaleko Gizarte Kohesio zinegotzia. Antolatzailea: EurGetxo.

APIRILAK 21 OSTIRALA

Liburu azoka. Algortako Geltokia plazan, 10:00-14:00 eta 17:00-21:00h.

Kontzertua. Bakarka zikloa. Romo Kultur Etxean, 19:30ean, Demode Quartet 5€.

Zine-Kluba. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Gran Libertad", Sebastián Meiseren filma. Jatorrizko Bertsioan Azpittuluekin. 12 urtetik aurrera. Sarrera: 3,50€.

APIRILAK 22 LARUNBATA

Liburu azoka. Algortako Geltokia plazan, 10:00-14:30 eta 17:00-21:00h.

Antzerki amateurreko jardunaldiak. 19:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, "Siempre en otoño", Castro-Urdialeseko Tela Marinera taldearen eskutik. Sarrera: 6€ (txarteldegian antzezenaren egun berean edo 639 54 45 94 telefonon). Antolatzailea: Itxartu Antzerki Taldea.

Ingurumen Aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30h., Ama Lurraren Mundu Eguna: Marrazketa-lehiaketa (4 urtetik aurrera). Saria: Produktu ekologikoen saskia. Aldez aurretik izena eman behar da: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

APIRILAK 23 IGANDEA

Liburu Outleta. 11:00etatik 14:00etara, Romoko San Jose elizako arkupetan. Antolatzailea: Gizatiar

Liburu azoka. Algortako Geltokia plazan, 11:00-14:30.

Zinemabari. Muxikebarrin, 12:00etan, "Mi querido monstruo". 7 urtetik aurrera. 2,50€.

Ingurumen Aretoa. 10:15, 11:00,

11:40 eta 12:15. "Street escape: Inbaditzaileak geldiarazi!" (8 urtetik aurrera). Aldez aurretik izena eman behar da: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

APIRILAK 24 ASTELEHENA

Hitzaldia. 18:15ean, Romo Kultur Etxean. "La piel: el espejo del alma", Manuel Pascual Ares, Dermatologia mediko-kirurgikoko eta benereologiako mediku egotzilearekin. Antolatzailea: Gizatiar.

APIRILAK 25 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJAN Eren egoitzan (J. B. Zabala 6, behe. Algorta), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra (gaztelaniaz). 60 urtetik gorako pertsonentzat.

APIRILAK 26 ASTEAZKENA

Versadas olerki-kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, Aurora Luque. Sarrera dohainik.

APIRILAK 27 OSTEGUNA

Hitzaldia. 18:00etan, Romoko San Jose elizako batzar aretoa. "Los proyectos solidarios de Gizatiar", Fundazio eta elkarte batzuetako ordezkariarekin. Antolatzailea: Gizatiar.

Zinemabari. 19:00ean, Muxikebarrin, "Bar Bahar: Entre dos mundos", Maysaloun Hamouden filma. Jatorrizko Bertsioan Azpittuluekin. 16 urtetik aurrera. 3,50€.

APIRILAK 28 OSTIRALA

Antzerkia. Muxikebarrin, 19:30ean, "Obsoletus", Anodino Teatroaren eskutik. 8€.

Zine-Kluba. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "La ola", Dennis Ganselen filma. Gaztelaniaz. 16 urtetik aurrera. 3,50€.

Kontzertua. 18:30ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Merlat Hirukotea (biolina, txeloa eta harpa). Sarrera dohainik.

APIRILAK 29 LARUNBATA

Nazioarteko Dantza Eguna. Bertoko dantza eskoletako ikasleen eskutik, Algortako San Nikolas plazan: 11:30-13:00h, haur-gazte dantzaldia; 13:00-13:45h, Dantza Modernoko klase irekia, eta 18:00-20:00h, ikasle helduen dantzaldia. Dohainik. Eguraldi txarra izanez gero, bertan behera utziko da.

APIRILAK 30 IGANDEA

Pio Lindegaarden omenezko kontzertua. Jean Toussaint Quartet, 19:30ean, Muxikebarrin. 15€.

Zinemabari. Muxikebarrin, 12:00etan, "Nur, herensugearen tenplua". Euskaraz. Adin guztientzat. 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, "Turuleka oiloa". Euskaraz. Adin guztientzat. 2,50€.

Beste 42.000 euro eskola-orduz kanpoko jardueretarako eta 40.057 euro euskara eta euskal kultura garatzeko 60.427 euro euskara ikastea eta erabiltzea sustatzeko

Udalak euskara ikasteko, ezagutzeko eta erabiltzeko dirulaguntzen deialdia onartu du, beste urte batez. Horretara 60.427 euro zuzendu ditu. Ohi bezala, partidari handienak ikaskuntzara bideratuko dira, baliabide ekonomikoen arabera. Laguntzek matrikularen kostuaren %80a ere ordain dezakete eta HABEK emandakoen osagarri gisa banatuko dira. Kontuan hartu beharreko baliabide ekonomikoen taula eguneratu da eta 16 urteko gazteei ez zaie familia-unitatearen diru-sarrerarik eskatuko (6 eta 15 urte bitarteko haurren eta gazteen ikaskuntzan izan ezik). Eskatzaileen diru-sarrerak edo diru-sarrerarik eza bakarrik baloratuko dira.

Laguntzak euskara ikasteko matrikuletarako, gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiteko, elkarretako aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko, eta errotuluak, olanak, pertsianak, biniloak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko. Diru-laguntza horiekin batera, Udalak beste zerbitzu batzuk mantenduko ditu, tartean, itzulpen zerbitzua, aholkularitza, ekitaldietarako

aurkezle euskaldunena, eta merkatariari nahiz ostalariei doan eskaintzen dizkien itzulpen eta maketazio zerbitzuak.

Eskola-orduz kanpoko jardueretarako dirulaguntzak Bestalde, eskola-orduz kanpoko jardueretarako dirulaguntzak ere banatuko dira. Udalak 42.000 euro onartu ditu hurrengoetarako: barne-tegiak edo eguneko irteerak; antzerkia, bertsoak edo berbodromoak; errefortzu klaseak; euskaraz garatzen diren ohiko jardueretara, horien artean, futbola, saskibaloia, xakea... Euskararen Eguna, euskal astea eta abar. 17.urtez jarraian ematen diren subentzioak dira, arlo akademikoan onarpen zabalarekin, aurreko urtean 22 guraso-elkartek eta ikas-tetxek aurkeztutako 199 jarduerak erakusten dutenez.

Euskal kultura edo euskarazko kultura garatzeko jarduerak

Udalak beste 40.057 euro onartu ditu euskara edo euskal kultura sustatzeko ekintzak egiten dituzten elkarte, erakunde edo enpresarentzat, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatze aldera,

ESEP, Euskara Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoak jasotzen duenaren arabera.

Honetan hurrengoak sartzen dira: lokal baten gastuak; San Juan jaia antolatzeko gastuak; auzoetako Olentzeroak antolatzean sortzen diren gastuak, eta Getxo eta Getxon garatutako kultura Euskal Herri osoko gazteei erakutsiko dien proiektu bakarrerako.

Eskaerak

Eskaerak Administrazio Elektronikoko Bulegoaren bitartez aurkeztu beharko dira. Dirulaguntza bakoitzaren izenemateari buruzko informazio gehiago: <https://labur.eus/tdado>

Ikasketen homologazioari buruzko tailerra

Etorikinen lanbide-gaitasunak aitortzeko Kosmopolis elkarteak beste tailer bat antolatu du, *La homologación-equivalencia, un paso necesario para el empleo y autoempleo* izenburupean, datorren apirilaren 28rako, ostirala, 17:45etik aurrera, Villamonteko Kultur Etxean.

Aurrekoetan bezala, doako jarduera hori, Udalaren eta Aldundiaren laguntzarekin antolatua, besteak beste, ikasketaren bat duten etorkinei zuzenduta dago (Baxilergoa, LH, Unibertsitatea...).

Kosmopolis elkarte duela 13 urtez geroztik tailerrak antolatzen ari da atzerrian egindako ikasketen homologazioari, baliozkotzeari eta baliokidetasunari buruz orientatzeko, bai eta euskal hezkuntza-sistema ezagutzarazteko ere, prestakuntzadinean zein lan-merkatuan sartzeko aukeran berdintasuna errazteko. Atzerriako baliozkotu beharreko ikasketei buruzko orientazioa ere ematen dute elkartetik.

Saioaren edukiera mugatua izango denez, bertaratzea baieztatzea gomendatzen da 688605551/946852103 telefono zenbakien bidez.

oporrak bakean
HAUR ERREFUKIATU SAHARAREN UDAKO HARRERA PROGRAMA
PROGRAMA DE ACOGIDA DE NIÑAS Y NIÑOS SAHARAIS REFUGIADOS EN VERANO

UDA BATEKO
IZAN HARRERA FAMILIA, BATU AVENTURA HONETARA

BESARKADA
PARTICIPA EN ESTA AVENTURA COMO FAMILIA DE ACOGIDA

Uda honetan saharako haur baten harrera familia izan nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta eskatu informazioa. Si este verano quieres acoger a un niño o niña saharauí, contactanos y pide información.

oporrakbakean.eus
atfai@gmail.com
Getxoko Udala: 94 466 00 17
Getxo Pro Sahara ATFAL: 668.751.359



- **Bidaia-agentzia** familiak bilatzen ari da, 3 edo 4 egunez eskola-bidaia bat egiten duten 2 edo 3 ikasleri ostatu emateko. Zure ohiko jarduera egin ahal izango duzu eta aparteko diru bat irabazi. Jarri gurekin harremanetan 639 21 02 60 telefonon.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragaztasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111



Agur Jose Antonio Sellán "Txato"-ri

José Antonio Sellán Peña jaunak, Txato-k, joan den ostiralean, hilaren 14an, jaso zuen azken agurra Areetan, aste horretan bertan hil ondoren.

Getxon ezaguna zen gure lurraldeko tradizioak bizirik mantentzeko egindako lanagatik, eta batez ere bere auzoan, Areetan, oso gizon maitatua izan da bere hurbiltasunagatik eta apaltasunagatik.

Bultzatzaile, antolatzaile eta/edo laguntzaile gisa, ez zuen huts egiten egutegi soziokulturaleko ohiko jardueretan: Areetako inauteriak Eskoletako plazan, ohiko 600en Eguna, dantza-alardeak, Olen-tzeroren ospakizuna edo Mese-deetako Andre Mariaren jaietako Barraskilo Lehiaketa herrikoia, baztuk aipatzearen.

2017an, AixeGetxo Saria jaso zuen, Udalak Berantzagi dantza taldeari emana, Kultur Ondare Ukigarri eta Ukiezin kategorian. Talde horri eskaini zion bere bizitzaren zati handi bat. Nola ez, Berantzagik oho-rezko Aurrezku berezi bat eskaini zion bere hiletan (Seat 600 autoez inguratua egon zen) eta Agur Jaunak jo zioten txistulariek, betiko lagunek abestuta. Ostiralean bertan, Areetako Amistad kalean ere egin zioten omenaldia.

Ekitaldi guztietan faltan botako dugu, eta zen bezala gogoratuko dugu: ia beti bizitzaz benetan gozazten zionarekin konprometituta.

Agur, Txato. Goian bego!

Demode Quartet, a capella kantua eta umorea Romo Kultur Etxean

Demode Quartet taldeak kontzertua eskainiko du ostiral honetan, apirilaren 21ean, Romo Kultur Etxean, bertako artisten sustapenerako *Barkarka* zikloaren barruan. Ikuskizuna 19:30ean hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du.

Honako hauek osatzen dute Demode Quartet: Joli Pascualena (ahotsa, konpositorea eta musika-zuzendaria), Iker Huici (ahotsa, konpositorea eta zuzendari teknikoa), Santi Romano (ahotsa eta konpositorea), Mikel Espinal (ahotsa) eta Patxi Barco (zuzendaria, letragilea eta gidoilaria). Egiten dutena a capella abestiak dira, oinarriekin edo instrumentuekin; kaleko ikuskizunak edo aretoetarako ikuskizunak, euskaraz edo gaztelaniaz, eta haurrentzat edo publiko guztientzat. 2021ean, *Kutsidazu Bidea* Ixabel ikuskizunak Musika Antzerkiaren Max saria irabazi zuen.



Musikeneko Interpretazio masterreko ikasleen kontzertuak, Areetan

2022-2023 ikasturtean Musikeneko Interpretazio masterreko ikasleek osatutako Trio MelArt eta Trio Codix taldeek kontzertu bana eskainiko dute gure udalerrian, Getxoko Musika Eskolaren eta Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren arteko lankidetzaren ondorioz.

Ostiralean, apirilak 28, Gema Díaz Guerra (biolina), Helena Sánchez (cello) eta Nerea Azcona (harpa) musikariek osatutako Trio MelArt arituko da eta Ravel, Glinka, Saint-Saëns eta Ibert-en lanak interpretatuko dituzte. Bestetik, maiatzaren 5ean, ostirala ere, Trio Codix taldearen txanda izango



da. Jaime Barranok (flauta), Laura Valentina Cardenasek (biolina) eta Esteban Ramirezek (biola) eratu-tako taldeak Beethoven, Reger eta Szervánszky-ren obrez osatutako programa interpretatuko du. Kontzertuak Areetako Andres Isasi Musika Eskolako auditorioan izango dira 18:30ean eta sarrera doakoa izango da.



Musikenerekin lankidetz
Andres Isasi Musika Eskolak aliantza estrategikoa du Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiarekin, instrumentisten belaunaldi berriei kalitatezko prestakuntza ematen laguntzeko ingurune profesionalean esperientzia praktikoa eskainiz, eta beren lana getxotarrei hurbiltzeko.

Naturopatia: hitzaldia eta ikastaroa

Naturopatiara hurbiltzeko hitzaldia antolatu du Egizu elkarteak, BentaraNoa elkartearen laguntzarekin, datorren apirilaren 25erako, asteartea, 18:30ean, Benta egoitzan. Bertan, Marta Kaperotxipi naturopataren eskutik ezagutu ahal izango da naturopatia zer den eta zein erreminta erabil daitezkeen, baita Gong Fu Cha te-zeremoniaren parte hartu ere.

Ondoren, sei saioko ikastaroa izango da, maiatzaren 2tik ekainaren 6ra arteko asteartean, 18:30etik 20:00etara, naturopatian sakontzeko. Berbaldia dohainik da eta ikastaroaren prezioa 70€ (60€ Berbalgunentzat eta BentaraNoa elkarte-koentzat). Bi ekitaldiak euskaraz. Izen-emateak: www.egizu.eus



Manu Oliverrek "Descansando en la vida" liburua aurkeztu du

Manu Oliver yoga irakasle eta idazleak *Descansando en la vida*. *La ternura del instante* bere azken lana aurkeztu berri du Algortako udal liburutegian, Villamonten. "Momentuaren samurtasuna, hemenak eta orainak zer esan nahi duten hausnartzea, orainaldia kontzientziaz bizitzea eta sentimenduen onarpen osoa" da liburua, egilearen beraren arabera. Liburu honek esperientzia hau transmititu eta gonbidatzen du eta trilogia ixten du, orainaldiko esperientziaren ingurukoa, aurreko bi testuekin osatzen duena: *Habitando la vida* eta *Intimando con la vida*.



1.550 plaza eskainiko dira Faduran eta Gobelan

Zabalik maiatzaren 5era arte Getxo Kirolakendako kirol-ikastaroetan izena emateko epea

Datorren maiatzaren 5era arte zabalik egongo da Getxo Kirolakendako kirol ikastaroetan parte hartzeko izena emateko epea. Guztira 1.550 plaza eskainiko dira Fadurako eta Gobelako kiroldegietan uztailan eta abuztuan antolatutako ikastaroetan. Programazioaren barnean, haurrei eta gazteei zuzendutako jarduerak daude, eta helduentzat padel modalitatea ere sartu da. Izena emateko beharrezkoa da abonutxartela edukitzea.

Eskaintzaren barnean, 4 eta 14 urte arteko haurrentzako aisialdiko eta kirol anitzeko lau orduko ikastaroak izango dira; astelehenetik ostiralera goizez, eta zaintza-zerbitzua ere egongo da jardueren ordutegia baino ordu erdi aurretik eta ondoren. Egunero ingelesa emango da ordubetez. Horrez gain, Grand Slam ikastaroak egongo dira 8 eta 16 urte arteko adingabeentzat, tenisa, padela eta uretako jarduerak praktikatzeko; halaber, Getxo Igeriketa klubak igeriketa-klaseak emango ditu 4 eta 17 urte arteko adingabeentzat.

Aurretiko izen-emateak Fadurako eta Gobelako herritarren arretarako bulegoetan edo Getxo Kirolakendako webgunearen bidez egin ahal izango dira. Izapidea online egiteko, NAN elektronikoa edo sarbide pertsonaleko gako bat behar dira eta azken hori kiroldegietako bulegoetan eskatu behar da. Online sarbide-gakoak aukera ematen du instalazioak erreserbatzeko nahiz kirol-ikastaroen altak eta bajak kudeatzeko edozein deialditan –udako ikastaroak eta garaiko ikastaroak–. Plazen zozketa maiatzaren 10ean argitaratuko da.

Klubek kirol eskaintza

Getxo Kirolakendako eskaintzaz gain, Getxoko klubek kirol-ikastaroak eta -campusak ere antolatuko dituzte udan honako modalitate hauetan: atletismoa, kirol egozitua eta inklusiboa, errugbia, eskubaloia, futbola, gimnasia erritmikoa, psikomotritzitatea eta gimnasia, igeriketa, patinajea, kirol anitza, saskibaloia, tenisa, txirrindularitza, arrauna, bela, kayaka, padel surfa, surfa eta xakea.

Horietan izena emateko ez da beharrezkoa izango Getxo Kirolakendako abonutxartela edukitzea, baina dutenek %7ko deskontua

eskuratu ahal izango dute.

Aurtengo udako udal kirol-eskaintzan, *Gimnasia eta aquagym kostaldean* doako programa ere sartzen da, 60 urtetik gorako pertsonentzat. Egunero ordubete-ko klasea emango da 10:00etatik 11:00etara, hainbat kirol-parketan eta Ereagako hondartzan.

Getxo Kirolakendak liburuxka bat argitaratu du udako kirol-eskaintza osoarekin (udal-erakundeak antolatutakoa nahiz klubek antolatutakoa), eta liburuxka hori Fadurako eta Gobelako bulegoetan jaso daiteke edota bere webgunetik (<https://labur.eus/483B0>) deskargatu.

II. Engel & Völkers Saria Abrara itzuliko da

II. Engel & Völkers Saria, aurten 125. urteurrena ospatzen ari den R. Club Marítimo del Abra-R.S.C. elkarteak antolatua, Areetako klub horren 2023ko bela-egutegiko hurrengo proba da. Txapelketa larunbat honetan hasiko da, hilaren 22an, Abrako uretan. Aurreikusitakoaren arabera, kurtzero erako ontzien irteera 13:00etan egingo da eta ordubete lehenago J80 monotipoena. Lau jardunalditan jokatu da txapelketa, maiatzaren 6an eta 27an eta ekainaren 10ean ere egingo baita. Tripulazioak, sari honekin, urteko txapelketa garrantzitsuenetarako prestatzen ari dira: hala nola, maiatzaren 1eko Regata a la Inversa-BBVA Estropada, XVIII. Surne Estropada-58. Eskarra Trofeoa, XXXVIII. Bizkaiko Kurtzeroen Porsche Txapelketa, XXXII. EKP Euskal Kostaldeko Estropada-Urrezko Balea Garaikurra, Gitana Kopa, edo abuztuan Getxo-Gijon Estropada/One Sails 50+ Liga eta Getxo-Gijon-Coruña proba. Irailetik aurrera, Castro Kopa, X. El Correo Saria, Gurutze Gorriaren Sari Soziala eta denboraldiari amaiera emango dion El Gallo Estropada izango dira. Gainera, proba horrekin batera, maiatzean emakumezkoen Iberdrola Liga izango da eta ekainean Espainiako J80-Lurauto Txapelketa.

Bestalde, joan den asteburuan José Luis Azqueta XXI. Saria erabakiz nabigaziorako bi jardunaldi ederretan, estatuko hainbat erkidegotako 200 estropadalarari baino gehiagorekin, Optimist, ILCA, FEVA eta Snipe klaseetan.

Getxo Rugby taldeak igoera zuzena izango du jokoan Faduran



Emakumezkoen Getxo Rugby taldeak Ohorezko A Mailara igotzeko finala jokatu du FC Bartzelonaren aurka igande honetan, hilak 23, 12:30ean Faduran. Bi ekipoak izan dira Ligako lehen bi postuetan. Getxoko taldeko bi teknikariek, Aitor Etxeberriak eta Javier Aguadok, final parekatua aurreikusten dute, obala mugitzea gustuko duten 2 ekipo dinamikorekin, "baina argi daukagu gure jokoa transmisio onekin egiten badugu eta defentsan sendoak bagara bide luzea izango dugu eginda. Taldeak denboraldi aparta egin du eta amaiera bikaina ematea besterik ez da geratzen", adierazi du Aguadok. Getxo RTk, beraz, bost urte geroago berreskuratu dezake maila. Dena dela, finaleko galtzaileak beste aukera bat izango du Ohorezko A Mailako azken-aurreko Pozuelo Olinpiakoaren aurka jokatu duen promozio partidaren.